

# ELKARTEEN FOROA

## 2022ko jarduera-txostena



**Pedalei eragiten jarraitzen dugu!**

2023ko otsaila

Gipuzkoako Foru Aldundia ● Herritarren Partaidetzako Zuzendaritza



Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Gobernaintza Departamentua



# Eskema

0. Aurkezpena.....	3
1. Gipuzkoako Elkarten Foroa.....	4
Zer da	
Zertarako	
Nortzuk	
Nola	
2. Urteko helburuak eta plangintza .....	7
3. Foroak 2022an egindako jarduerak eta emaitzak.....	9
Eskema globala	
Erakunde protagonistak	
Aurrera eramandako jarduerak	
4. Urteko balorazioa: lorpenak eta erronkak.....	22
5. 2023ko segida .....	24

# O Aurkezpena

Dokumentu honetan, Herritarren Partaidetzarako Gipuzkoako Elkarteen Foroak 2022an aurrera eramandako prozesuaren eta egindako lanaren laburpena eta giltzarri nagusiak jasotzen dira.

lazko urteko txostenaren eskema bera jarraitu da. Hala, hauek dira dokumentu honen ardatzak: batetik, abiapuntuko proposamenari buruzko informazio nagusia; bestetik, 2022ko urtean zehar emandako pausoak eta aurrera eramandako jarduerak; eta, hirugarrenik, egindako lorpen eta ezarritako erronka nagusien balorazioa. Bukatzeko, programak 2023an izango duen segidari buruzko aurrerapen bat jasotzen da.





# Gipuzkoako Elkarteen Foroa

## Zer da

**Gipuzkoako Elkarteen Foroa topaketa eta lankidetzarako espazio bat da,** Gipuzkoan herritarren parte-hartzea bultzatzen duten elkarteek eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Partaidetzako Zuzendaritzak osatua.

Kultura parte-hartzailea lantzeko eta lankidetzaz sustatzeko esperientziak eta tresnak partekatzen diren espazio bat da. Bestalde, ekosistema malgu gisa jarduten du Elkarteen Foroak, alegia, Gipuzkoan herritarren parte-hartzea lantzen duten erakundeek, edozein unetan, aukera dute foroan sartzeko.

Elkarteen Foroa 2020aren amaieran sortu zen, Gipuzkoako zenbait elkartek egindako eskaerari erantzunez. Hala, Gipuzkoako Foru Aldundiko Partaidetzako Zuzendaritzak 2019-2023rako Herritarren Partaidetzarako Programan jasotzen zen.

### **2019-2023rako Herritarren Partaidetzarako Programa**

#### **46. ekintza Elkarteen Foroa**

Ekintza horren bidez, Gipuzkoan herritarren parte-hartzea lantzen duten erakundeen bilgune bat sortu nahi da. Helburu hauek izango ditu: batetik, hausnarketak partekatzeko, elkar ezagutzeko eta Gipuzkoako herritarren elkarteen esperientziatik ikasteko espazio bat sortzea, kultura parte-hartzaileagoa sustatzeko asmoz; eta, bestetik, herritarrek parte hartzeko komunitate mailako prozesuak bultzatzea.

Beraz, 2022a bigarren urtea izan da Foroaren ibilbidean.

# Zergatik

Hasierako proposamenaren arabera, hauek dira Herritarren Partaidetzarako Elkarteen Foroak dituen helburuak:

- Elkarren ezagutzan sakontzea (elkarteen artekoa eta elkarteen eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren artekoa), elkartzen dituen horretatik abiatuta: herritarren parte-hartzearen aldeko konpromisoa izatea eta parte-hartze hori sustatzea.
- Gipuzkoako elkarrekin egiten duten lana eta gizarteari egiten dioten ekarpena aitortu, sozializatu eta ikusgarritasuna ematea.
- Gipuzkoan eta Gipuzkoatik kanpo herritarren partaidetzaren arloan dauden eta sustatzen diren parte-hartze ereduen inguruan hausnartu eta horretan sakontzea.
- Erakundeek parte-hartzearen inguruan dituzten prestakuntza-beharrak identifikatu eta behar horiei elkarrekin erantzutea.
- Gipuzkoako Foru Aldundiak herritarren parte-hartzearen arloan dituen eta eskaintzen dituen tresnak ezagutzera ematea: Foru Araua, Herritarren Partaidetzarako Programa, diru-laguntzak eta beste batzuk.

# Nortzuk

Askotariko prozesu, proiektu eta ekimenen bidez herritarren parte-hartzea bultzatzen duten elkarte gipuzkoarrek parte hartzeko espazio ireki bat da Elkarteen Foroa, eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Herritarren Partaidetzako Zuzendaritzak ere parte hartzen du.

Foroaren ibilbidearen hasiera honetan, Herritarren Partaidetzako Zuzendaritzak diruz lagundutako herritarren partaidetza-proiektuak egin dituzten erakundeei egin zaie dei, lehentasunez, foroan parte hartzeko. Foroak formatu malgua du, eta hainbat sarrera eta irteera izan dira hilabeteotan.

Aurrerantzean, askotariko helburu eta jarduera-eremuak dituzten erakundeei foroan sartzeko gonbidapena egiteko asmoa dago, pixkanaka eta tentuz, espazio eta ekosistema hori indartu daitezen eta gutxieneko egonkortasun bat bermatu dadin.

# Nola

Elkarteen Foroaren lehenengo topaketa 2020ko abenduaren 18an egin zen. Bilera horretan, funtzionamendu eta plangintzarako lehenengo eskema marraztu zuten, Foroa martxan jarri ahal izateko.



Gipuzkoako Elkarteen Foroaren oinarrizko planteamenduaren irudikapen grafikoa.

2021a amaitu eta balorazioa egin ondoren, 2022rako antzeko eskema bat proposatu zen, doikuntza txiki batzuekin.

# 2

## Urteko helburuak eta plangintza

### Landu nahi diren edukiak

Funtsezko edukiei dagokienez, eta Foroaren izaerari eutsiz, 2021eko azken topaketan nabarmendutako gaien inguruan hausnartu eta gai horietan sakondu nahi izan du Elkartearen Foroak.

Zehazki, gai hauez ari gara:

- Herritarren partaidetzaren kontzeptua eta helburuak
- Herritarren partaidetzaren balioa gizartean
- Parte hartzeko metodologiak eta prozesu eta emaitzetan duten eragina
- Hainbat arlotako partaidetza-esperientziak

HERRITARREN  
PARTAIDETZARI  
BURUZKO  
KONTZEPTUA ETA  
EREDUAK

HERRITARREN  
PARTAIDETZAREN  
BALIOA GIZARTEAN

METODOLOGIA  
PARTE-HARTZAILEAK  
ETA PROZESUETAN  
DUTEN ERAGINA

HAINBAT ARLOTAKO  
ESPERIENTZIA  
PARTE-HARTZAILEAK  
HAINBAT ARLOAN


Foroa osatzen duten elkarte eta pertsonen eskuzabaltasunez esperientziak trukatzu, hartuz eta emanez, egin den hori guztia.

# Nola: hasierako planifikazioa

“Nola” galderari erantzuteko, plangintza hau egin zen urtearen hasieran:



## Aurten bidea egiten jarraituko dugu



Komunikaziorako plataforma digitala: slack



Partaidetzako Zuzendaritzaren eta elkartearen arteko etengabeko komunikazioa

## 2022 urtea



Aurreko urteko eskemari jarraituz, ibilbide hau proposatu zen 2022rako:


- **A. Foroaren bilerak. 4 bilera** urtean zehar –ahal bada aurrez aurrekoak–, lehenetsitako edukiak lantzen joateko.
- **B. Prestakuntza.** Zehazteke eta antolatzeke. Elkartearen beharrak abiapuntutzat hartuta, herritarren partaidetzarekin lotutako formakuntzaren bat.
- **C. Etengabeko komunikazioa:** slack plataforma. Slack plataformaren eguneratze etengabekoa eta kolektiboa, foroa osatzen duten erakundearen eta pertsonen arteko komunikazioa mantentzeko eta intereseko informazioa partekatzeko.
- **D. Barne-koordinazioa.** Nagusiki, Herritarren Partaidetzako Zuzendaritzaren eta kanpoko laguntza-taldearen (Prometea) artekoa, ibilbide guztia prestatu eta segimendua egiteko.

# 3 Foroak 2022an egindako jarduerak eta emaitzak

## Eskema globala

Laburbilduz, irudi honetan jasotzen dira 2022an zehar Elkartearen Foroaren esparruan aurrera eramandako jarduerak:

### 2022 urtea: benetakoa ibilbidea



Formakuntza, saio bakoitzean eta prozesuan txertatuta

Komunikaziorako plataforma digitala: slack

Partaidetzako Zuzendaritzaren eta elkartearen arteko etengabeko komunikazioa



Aurrez egindako plangintza errespetatu eta aurrera eraman da, neurri handi batean, foroak berak proposatu eta adostutako doikuntza batekin; hain zuzen, aurrez aurreko bosgarren topaketa bat egitea eta formakuntza topaketetan bertan eta aplikatutako metodologietan txertatzea. Segidan jasotzen da egindakoaren laburpena.



Erakundea	Pertsona	1. bilera 22.01.28	2. bilera 22.03.25	3. bilera 22.06.03	4. bilera 22.10.07	5. bilera 22.12.19	Slack
<b>Gipuzkoako elkarte eta erakundeak</b>							
Adokin	Maialen				•	•	
AGIJUPENS	Joxe Agustin	•					
Arrats	Kotte		•	•	•	•	•
Bagera	Ainara	•	•	•			•
Bolunta - EDE Fundazioa	Maria	•					
Bakeola - EDE Fundazioa eta Landetxa Auzo Elkartea	Maider	•	•			•	•
	Aingere			•			
BDSKoop	Dornaku	•		•			
Campo creativo cero							•
CEAR Euskadi							•
Gipuzkoako Farmazialarien Elkargoa	Xabier	•	•				•
Dar-Dar kooperatib	Asier				•	•	
	Iker				•	•	
EIBE	Unai	•	•				
EKAI taldea	Errukane		•		•		•
Elkartu	Maialen	•	•	•	•	•	
Emigrad@s sin fronteras	Luisa Maria			•			
	Victor					•	
Eusko Ikaskuntza	Joseba			•			
	Koro			•	•	•	
GAEA							•
Gizalde	Miren	•	•	•		•	•
I.M.M.E.	Djamila				•	•	
ImpactHub	Xabier	•	•	•	•	•	•
Jatorkin							•
KAEBNAI	Jorge	•					•
	Ainhoa			•			
Lleno de Naranjas	Imatxi	•			•	•	•
Lotura Giza Garapena							•
Politki	Maria	•	•	•	•	•	
SOS Arrazakeria	Imanol	•	•	•	•	•	•
Surfrider España							•

Erakundea	Pertsona	1. bilera 22.01.28	2. bilera 22.03.25	3. bilera 22.06.03	4. bilera 22.10.07	5. bilera 22.12.19	Slack
Gipuzkoako elkarte eta erakundeak							
	Mikel Pagola, zuzendaria	•	•	•	•	•	•
	Itziar Calvo, zerbitzuburua		•	•	•	•	•
	Joxe Piñas, teknikaria	•	•	•	•	•	•
	Olatz Dañobeitia, teknikaria			•	•		•
	Itsaso Olaizola, teknikaria		•		•		•
Prometea	Iciar	•	•	•	•	•	•
	Zorione	•	•	•	•	•	•

### 2022ko partaidetza-datuei buruzko giltzarri batzuk:

- Guztira, Gipuzkoako 21 elkarte eta erakundek hartu dute parte modu aktiboan Foru Aldundiko Partaidetzako Zuzendaritzaren lan-taldearekin batera Elkartearen Foroko bilera batzuetan edo denetan.
- Elkarte eta erakunde guztietatik, gehienek 2-3 bileretara joan ahal izan dute –gutxienez–, eta horrek egonkortasuna eta sendotasuna eman dizkio prozesuari.
- Aurten talde berriak sartu dira (Adokin, Dar-Dar, I.M.M.E, Emigrad@ssin fronteras). 2021 ean parte hartu zuten elkarte batzuk, berriz, aurten ez dira agertu; hain zuzen, honako hauek: Campo creativo cero, CEAR Euskadi, GAEA, Jatorkin, Lotura Giza Garapena eta Surfrider.
- Topaketetan parte hartu duten pertsonak: guztira, 33 lagun –20 emakume eta 13 gizon– joan dira foroaren bileretako batera. Guztira, 92 partaidetza izan dira.

# Aurrera eramandako jarduerak

Hona hemen, 2022an, Elkartearen Foroak plangintzan zehazturiko 4 ardatzetan egindako jarduerak:

- Elkartearen Foroaren topaketak
- Formakuntza
- C. Etengabeko komunikazioa: *slack* plataforma
- D. Barne-koordinazioa

## A. FOROAREN TOPAKETAK

Azkenean, **5 topaketa** egin ziren 2022an; hasieran aurreikusitakoa baino bat gehiago.

Herritarren Partaidetzarako Foroak kanpo-laguntza eskaintzen duen Prometea taldearekin batera landu du bilera bakoitzaren diseinua, Foroan adostutako urteko helburuak abiapuntutzat hartuta.

Aurten, ahalegin berezia egin da, bilera bakoitzaren amaieran, hurrengo bilerarako oinarriak jartzeko, hala, aurrerapausoak emateko elkarren arteko sorkuntzan eta Foroak bilgune eta partaidetzarako espazio gisa duen izaeran. Horrez gain, bilera bakoitzean, denbora-tarte "huts" bat gorde da, partaideen artean intereseko informazioa trukatzeko.

Diru-laguntzen deialdira noizbait aurkeztu diren elkartearen zerrendako elkarte guztiei egin die zuzendaritzak bileretarako deialdia, eta, horrekin batera, lan-programa azaldu die.

Bilera bakoitzean, Prometea taldearen laguntza jaso da (hitzezkoa nahiz grafikoa), eta Foru Aldundiak aldibereko itzulpen zerbitzua eskaini du. Horrez gain, bilera bakoitza akta edo dokumentu batean jaso da. Txosten honekin batera jasotzen dira akta horiek.

Gaineratu beharra dago, pandemiak izan duen bilakaera positiboari esker, aurrez aurreko bilerak egin ahal izan direla, 2022ko urtarrilaren 28koa izan ezik.

Hona hemen topaketa bakoitzaren laburpena.

## I. topaketa

2022ko urtarrilak 28, ostirala, 10:00-12:30; *online* saioa

### Landutako helburuak-gaiak

- Ibilbidea: 2022rako zehaztutako oinarriak gogora ekarri.
- Taldearekin hitz egin eta zehaztu: aurten egingo dugun ibilbidean, zer balio zainduko ditugu Foroan? Nola egin nahi dugu lan elkarrekin?
- Funtsezko edukiak: Elkartearen Foroa osatzen dutenen artean herritarren partaidetzaren kontzeptua aztertu eta lantzea, galdera irekietatik abiatuta.
  - Herritarren partaidetza:  
Hiru kontzeptutan, nola ulertzen dugu gure elkartearen edo erakundearen?  
Zer ikuspegi/eredu ari dira lantzen gizaratean?  
Zer ikuspegi sustatu nahi dugu Gipuzkoako Elkartearen Foroaren bidez?

### Parte-hartzea

- 16 lagun -8 emakume eta 8 gizon-, 14 elkarteren eta Foru Aldundiaren ordezkari gisa; eta laguntza-taldea.

### Emaitza nagusiak

- 2022an zehar aurrera eraman beharreko prozesuan, espazio eta talde gisa zaindu beharreko elementuak zehaztea:
  - Konpromisoa; jarrera sortzaile eta irekia; giroa zainduz eta taldea eraikiz; emaitzak bilatzea eta praktikara bideratutako ekintza txikiak egitea; erakunde bakoitzaren rola aintzat hartuz.
- Partaidetzaren kontzeptuaren azterketa, parte hartu duen elkarte edo erakunde bakoitzaren eta Elkartearen Foroaren ikuspegitik: oinarri komun bat sortzea helburu duten hausnarketak eta ideiak.
- Informazioa trukatzeko espazioa: Herritarren Partaidetzako Zuzendaritzaren ekarpena diru-laguntzei, mugaz gaindiko aurrekontu parte-hartzaileei eta ekintza komunitariorako esparrua lantzeko prozesuari buruz.

### Bileraren balorazioa

- Foru Aldundiak bidalitako eta parte hartu duten erakundeek betetako galdetegiararen arabera: **8,71** (0tik 10erako eskalan).

## 2. topaketa

2022ko martxoak 25, ostirala, 10:00-13:00; aurrez aurreko bilera

### Landutako helburuak-gaiak

- Funtsezko edukiak: parte hartzeko metodologiei arreta jartzea, foroan dauden erakunde eta elkarten ezagutzatik eta esperientziatik abiatuta.
  - Zer metodologia parte-hartzaile lantzen ditugu gure elkarte eta erakundeetan?
- Bileran txertatutako prestakuntza-pilula, Prometea taldearen eskutik:
  - Zer irizpide orokorrek lagun diezagukete parte hartzeko metodologia baten edo bestearen alde egiteko orduan?
- Taldearen intereseko informazioa eta ezagutza partekatzea.
- 3. topaketaren ikuspegia zirriborratzea.

### Parte-hartzea

- 15 lagun -8 emakume eta 7 gizon-, 12 elkarteren eta Foru Aldundiaren ordezkari gisa; eta laguntza-taldea.

### Emaiza nagusiak

- Elkarten Foroko erakundeek erabilitako partaidetza-metodologiei buruzko ikasketa kolektiboa (zehazki, Elkartu, Politki, Ekai Center Fundazioa eta Landetxa bizilagun-elkarteen esperientziak).
- Prestakuntza-pilula: "Parte hartzeko metodologia bat ala bestea aukeratzeko orduan erabilgarriak izan daitezkeen irizpide orokorrei buruzko 8+3 formula".
- Informazioa trukatzeko espazioa: Herritarren Partaidetzarako Zuzendaritzaren ekarpena ekintza komunitariorako esparrua lantzeko prozesuari buruz, mugaz gaindiko aurrekontu parte-hartzaileei buruz eta diru-laguntzen programari buruz.
- 3. topaketaren oinarria definitzea.

### Bileraren balorazioa

- Foru Aldundiak bidalitako eta parte hartu duten erakundeek betetako galdetegiaren arabera: **8,70** (0tik10erako eskalan).



### 3. topaketa

2022ko ekainak 3, ostirala, 10:00-13:00; aurrez aurreko saioa

#### Landutako helburuak-gaiak

- Partaidetza integratu eta esperimentatzea metodologia zehatz baten bidez –open space, Politki elkarteko Mariaren eskutik–, Foroarentzat garrantzitsua den galdera baten erantzuna aztertzeko:  
*Nola erantzun diezaiekegu herritarren partaidetzaren inguruan ditugun kezka eta ametsei?*
- Taldearen interesekoa den informazioa eta ezagutza partekatzea.
- 3. topaketaren ikuspegia zirriborratzea.

#### Parte-hartzea

- 17 lagun -11 emakume eta 6 gizon-, 12 elkarteren eta Foru Aldundiaren ordezkari gisa; eta laguntza-taldea.

#### Emitza nagusiak

- *Open space* metodoaren praktikaren emaitza nagusiak, egindako galderarekin lotuta: parte-hartzearen inguruan kezkatzen gaituzten gaien inguruan sakontzen jarraitzeko hariak identifikatzea. Dokumentu berezi batean jasotzen dira.
- Topaketan txertatutako prestakuntza kolektiboa: open space metodologiaren esperimentazioa, Foroko kide den Politki Elkartearen laguntzarekin.
- Intereseko informazio-trukea parte hartu duten elkarten artean.

#### Bileraren balorazioa

- Foru Aldundiak bidalitako eta parte hartu duten erakundeek betetako galdetegiaren arabera: **8,45** (0tik10erako eskalan).



## 4. topaketa

2022ko urriak 7, ostirala, 10:00-13:00; aurrez aurreko bilera

### Landutako helburuak/gaiak

- Ekainaren 6an abian jarritako *open spaceari* jarraipena ematea, galdera honetan sakontzeko:  
*Zer egin dezakegu elkarrekin, eta nola, Gipuzkoako asoziazionismoak partaidetzari eta komunitatearen eraikuntzari egiten dion ekarpena ikusarazi eta baloratzeko?*  
Oraingo honetan, Politki elkarteko Mariaren laguntza ere izan dugu, *open space* metodologia ezagutzen baitu.
- Taldearen interesekoa izan daitekeen informazioa eta ezagutza partekatzea.
- 4. tokapetako ikuspegia zirriborratzea.

### Parte-hartzea

- 17 lagun –10 emakume eta 7 gizon-, 11 elkarteren eta Foru Aldundiaren ordezkari gisa; eta laguntza-taldea.

### Emaiza nagusiak

- *Open space* praktikaren emaitza nagusiak, egindako galderarekin lotuta: 6 ekintza-hazi planteamendua, Elkarteen Foroan lantzeko. Dokumentu berezi batean jaso dira.
- Topaketan txertatutako prestakuntza kolektiboa: *open space* metodologiaren esperimentazioa, Foroko kide den Politki Elkarteen laguntzarekin.
- Intereseko informazio-trukea parte hartu duten elkarteen artean.

### Bileraren balorazioa

- Foru Aldundiak bidalitako eta parte hartu duten erakundeek betetako galdegetziaren arabera: **8,91** (0tik 10erako eskalan).



## 5. topaketa

2022ko abenduak 19, astelehena, 10:00-13:00; aurrez aurreko bilera

### Landutako helburuak-gaiak

- Urriaren 7ko topaketan Elkartearen Foroak lantzeko egindako proposamenak gogora ekartzea eta 2023rako erronkak zehazteak: zer eta nola.
- Foroak aurten egin duen ibilbidearen ebaluazio labur bat egitea.
- Taldearen interesekoa izan daitezkeen informazioa eta ezagutza partekatzea.

---

### Parte-hartzea

- 17 lagun –9 emakume eta 8 gizon-, 13 elkarteren eta Foru Aldundiaren ordezkari gisa; eta laguntza-taldea.

---

### Emaitza nagusiak

- Ekintzara jauzia: Foroko kideek modu bateratuan aurrera eraman beharreko proposamenaren zehaztapena, galdera honi erantzunez: *“Zer egin dezakegu elkarrekin, eta nola, Gipuzkoako asoziazionismoak partaidetzari eta komunitatearen eraikuntzari egiten dion ekarpena ikusarazi eta baloratzeko?”*.
- Foroak 2022an egindako ibilbidearen ebaluazioa: positiboki baloratutako alderdien giltzarriak eta 2023an hobetu beharreko alderdiak.
- Intereseko informazioaren barne-trukea parte hartzen duten erakundearen artean: Sos Arrazakeria elkartearen gonbidapena eta informazio-trukea Herritarren Partaidetzako Zuzendaritzaren bidez.

---

### Bileraren balorazioa

- Foru Aldundiak bidalitako eta parte hartu duten erakundeek betetako galdetegiaren arabera: **9,15** (0tik 10erako eskalan).
-

## B. FORMAKUNTZA

Elkarteen Foroak formakuntzari emandako norabidea izan da aurtengo berrikuntzetako bat.

Foroko elkarte eta erakundeek eskaera egina zuten formakuntza Foroaren topaketetan txertatzeko, alegia, topaketak elkarrekin ikasteko ere erabiltzeko, ikastaro bereziak edo antzekoak antolatu beharrean. Horrez gain, aldaketa hori eginez, taldearen beraren ezagutzak eta jakintzak aintzat hartu eta baloratzen dira, ahal den neurrian.

Hala, hainbat unetan eta modutan gauzatu da urte honetako formazio-prozesua:

### Elkarteen Foroaren zeharkako formakuntza integratua

#### 2. topaketa: metodologia parte-hartzaileak

- Foroan parte hartzen duten erakunde eta elkarteek erabilitako metodologiak erakutsi eta azaltzea (Elkartu, Politki, Ekai Center Fundazioa eta Landetxa bizilagun-elkartea).
- Bileran txertatutako formakuntza-pilula, Prometea taldearen eskutik: Zer irizpide orokorrek lagun diezagukete parte hartzeko metodologia baten edo bestearen alde egiteko orduan?

---

#### 3. eta 4. topaketak

- *Open space* metodologiaren esperimentazioa (hasierako azalpen kontzeptuala bane), Politki elkartearen eskutik, eta foroan aztertu eta landu beharreko edukietara aplikatua.
- 

Formula berri horrek oso balorazio ona jaso du foroaren aldetik.

## C. ETENGABEKO KOMUNIKAZIOA: SLACK PLATAFORMA

Elkarteen Foroaren slack plataforma 2021eko otsailaren 18an sortu zen:  
<https://gfaelkarteenf-ssk5670.slack.com/ssb/redirect>.

2022ko abenduan eguneratutako datuen arabera:

### Slack plataforma

#### Erabiltzaileak

- 34 pertsona edo erakunde parte-hartzaile

#### Edukiak

- Lau elkarrizketa-hari sortu dira. Hari horiek aldizka elikatzen dira, foroak eta foroko partaideek sortutako edukiekin:
  - #elkarteenforokosaioak-sesionesdelforo
  - #elkarteenberriak-temasdenuestrasasociaciones
  - #orokorra-general
  - #trebakuntza-formación

#### Laguntza-materiala

- 2021ean, erabilera-gida txiki bat egin zuen Herritarren Partaidetzako Zuzendaritzak. Gida hori Elkarteen Foroarekin loturiko dokumentazioarekin batera bidali izan da, plataforman parte hartzera gonbidatzeko mezuetan.

Oraingoz, plataforma ez da baliagarria izan, topaketatik topaketara, foroko erakundeen artean elkarrizketa eta komunikazio arina sortzeko.

## D. BARNE-KOORDINAZIOA

2021ean abian jarritako dinamikari jarraituz, Herritarren Partaidetzarako Zuzendaritzak Prometea taldearen kanpo-laguntza jaso du. Talde horrek honako lan hauek egiten lagundu du:

- Elkarteen Foroaren urteko ibilbidearen planifikazioa.
- Elkarteen Foroaren aurrez aurreko topaketak elkarrekin diseinatzea, antolatzen laguntzea eta dokumentatzea. *Open space* metodologiarekin aurrera eraman diren bi saioetan ere lagundu du. Horretarako, Politiki elkarteen laguntza puntuala jaso zen.
- *Slack* plataformaren dinamizazioa.

Prozesua ondo aurrera eramateko, bi taldeak –Herritarren Partaidetzako Zuzendaritza eta Prometea– elkarlanean aritu dira, etengabeko koordinazioa mantenduz.

Zehazki, **koordinaziorako 5 barne-bilera** egin dira –guztiak *online* formatuan, eraginkorragoa izateko–, egun hauetan:

- Urtarrilak 10
- Martxoak 4
- Maiatzak 11
- Irailak 6
- Azaroak 23

Etengabeko komunikazioa mantendu da posta elektronikoz bidez eta telefonoz.

Horrez gain, elkarreetara ere zabaldu da koordinazioa: Herritarren Partaidetzako Zuzendaritza etengabeko komunikazioan egon da foroko kideekin, urte osoan zehar. Hain zuzen, bitarteko hauek erabili dira:

- Komunikazio formalak: Foroaren deialdia, posta elektronikoz bidez (idatziz eta bideoz).
- Komunikazio informalak: telefono-deiak aldizka sortzen diren kontuez hitz egiteko edo eraikitzen ari diren bidea baloratzen joateko.

# 3 Urteko balorazio partekatua

2022ko Elkarten Foroaren azken topaketan, urteko ebaluazio bateratua egin zuten, ordura arte ikasitakoa aztertzeko eta 2023an ibilbideari jarraipena emateko giltzarriak zehazteko.

## Positiboki baloratutako alderdiak

- **Ongietorriko kafea:** aukera ezin hobe bat sortzen du elkar ezagutzeko. Espazio informal horiek zaintzeak balio handia du.
- **Itzulpen zerbitzua:** ez da ohikoa hizkuntzaren gaia hainbeste mimoz zaintzea, eta foroan asko zaintzen da.
- **Espazioa, foroa bera:** elkarteek nahiz elkarteetako kideek elkar ezagutzeko eta erakundea ezagutzeko espazio bat da.
- Bileren hasieran egiten den **testuinguruaren azalpena** eta aurrez bidaltzen den **dokumentazioa:** foroa espazio malgua izanik (batzuk sartu eta beste batzuk ateratzen dira), parte-hartzaileei kokatzen laguntzen die.
- Elkarten Foroa osatzen duten pertsona guztien **konpromisoa:** elkarteak eta Herritarren Partaidetzako Zuzendaritza.
- **Taldearekiko atxikipenean** izan den bilakaera: "Hastapenetatik gaur egun arte, nabarmena izan da aldaketa. Gero eta taldeago sentitzen gara".
- Laguntza-taldearen **dinamizazioak** foroaren eta aurrera eramaten ari den prozesuaren parte izaten laguntzen du.
- Sortzen ari garen **taldearen eboluzioa:** konplexua izan arren, **praktika eta ekintza** ere baditugu xede.
- Foroak **elkarrekin ikasteko eta metodologiak esperimintatzeko** eman digun aukera, bereziki, *open space* tresnaren bidez.

# Hobetu beharreko alderdiak

- **Foru Aldundian –eta handik kanpo– dauden beste espazio batzuekin loturak eta sinergiak bilatzea** (adibidez, Aniztasunaren Foroarekin). Izatez, antzeko jendea gabiltza batean eta bestean, eta antzeko gaiak lantzen ditugu; beraz, aberasgarria izango litzateke denontzat.
- Gipuzkoako Foru Aldundiak egin duen **Ekintza Komunitariorako esparruarekin loturak** bilatzea.
- **Elkarteen Foroan parte hartzen duten eta parte hartzen ez duten erakundeei/pertsonei arreta** jartzea. Nahiko genuke beste norbait egotea? Zer pasa da galdu ditugunekin?
- Topaketak prestatzeko eta laguntza emateko orduan kontuan izan beharrekoak:
  - Etiketak erabiltzea, parte hartzen dutenen izenak ikasten joateko.
  - Partaide berriei ongietorria egitea: partaide berri bat datorrela dakigunean, nola prestatu haren harrera?
  - Saia gaitezen "etxeko lanik" ez jartzen; zukutu ditzagun topaketak ahalik gehien.
- Nola mantendu **topaketa batetik besterako harremana eta komunikazioa**? Gure esku dago:
  - *Slacka* erabil genezake.
  - Edota dokumentu partekatuen gisako tresnak erabil genitzake (google-docs).

# 4

## 2023ko segida

2022a amaitzean, 2023an ere aurrera jarraitzeko asmo irmoa agertu zuen Elkartearen Foroak, helburu argi batekin:

“

Praktikan oinarrituz, elkarteek, erakundeek eta Foru Aldundiak partekatutako espazio batean parte hartzea eta elkarrekin sortzea, eta, denen artean, lehenetsitako interes komuneko ekintza zehatzak aurrera eramatea.

Eta praktikan oinarritutako lan horrekin batera, herritarren partaidetzaren inguruan elkar ezagutzen, elkar aintzatesten eta gauza berriak ikasten joatea, espazio eta ekosistema misto, askotariko eta ireki batean, ahalik eta konpromiso eta ilusio handienarekin.

2023ko otsailean egin den lehen topaketan, honako ideia hau jarri da mahai gainean:

- Aukeratutako ekintzaren inguruan lan egiten hastea: *“Elkarteek herritarren partaidetzari eta komunitatearen eraikuntzari egiten dioten ekarpena kontuan hartuz, elkarteak aintzat hartzeko udalek kontuan izan beharreko irizpideen dokumentua”*.
- Urteko ibilbidea zirriborratzea, hauteskunde-urtea izango dela kontuan izanik, eta 2023an lortu nahiko genituzkeen emaitza zehatzak zehaztea.

Eta hortik aurrera, pausoz pauso, prozesua aurrera eramaten eta Gipuzkoako Elkartearen Foroak proposatutako helburuei forma ematen joatea.

# Eskerrik asko guztioi!



**Segi aurrera!**